# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

61

277/1989 DEKRETUA, abenduaren 29koa, Familiaren Gutxienezko Dirusarrera ematea araupetzen duen otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren indarraldia luzatzen duena.

Otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren bidez Pobreziaren aurkako Osoko Planaren I Maila araupetu zen, zeinek baliabiderik gabeko famili-unitateei zuzendutako dirulaguntza izaerako prestazio ekonomikoa ezartzea baitu xedetzat, horien oinarrizko beharrei erantzun eta gizartean beren lekua har dezaten ahalbidetzearren. Delako xedapen horretan aurrikusitako laguntzak finantziatzera zuzendutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomi Elkarterako 1989 urtealdirako Aurrekontu Orokorrei zegozkien dirusailetatik zetozen.

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzak, egun Legebiltzarrean izapidetzen ari den Lege Proiektu bat onartu du, zeinen xedea Planaren delako I Maila finkatzea den. 1989 urtealdia amaiturik, eta gai horretan lege hutsarterik ez sortzearren, Jaurlaritzak, neurri honen beharraren jakitun izanik, bidezkotzat jotzen du otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren denborazko muga luzatzea, bihar-etzi Legea onartzearen bidez Dirusarrera behin-betiko finkatzen ez den bitartean.

Horren ondorioz, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1989.eko abenduaren 29ko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengo Atala.*— 1.— 1990.eko abenduaren 31ra arte luzaturik geratzen da Familiaren Gutxienezko Dirusarrera ematea araupetzen duen otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren indarraldia.

2.— Aurreko idazatian adierazten den luzapena indarrik gabe geratuko da Insertsiorako Gutxienezko Dirusarreraren Legea indarrean jartzen denean.

*Bigarren Atala.*— Eskaintzak aurkezteko epea xedapen hau indarrean dagoen aldiari dagokiona izango da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.*— Esku ematen zaio Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko suertatzen diren Xedapenak emateko.

*Bigarrena.*— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

61

DECRETO 277/1989, de 29 de Diciembre, por el que se prorroga la vigencia del Decreto 39/1989, de 28 de febrero por el que se regula la concesión del Ingreso Mínimo Familiar.

Mediante Decreto 39/1989, de 28 de febrero se reguló el Nivel I del Plan Integral de Lucha contra la Pobreza, el cual tiene como objetivo el establecimiento de una prestación económica de carácter subvencional destinada a las unidades familiares sin recursos con el fin de atender las necesidades básicas de éstas y posibilitar su inserción en la sociedad. Los recursos económicos destinados a la financiación de las ayudas previstas en dicha disposición procedían de las partidas correspondientes de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 1989.

Por su parte, el Gobierno Vasco ha aprobado un Proyecto de Ley, actualmente en tramitación en el Parlamento Vasco, cuya finalidad es la consolidación del citado Nivel I del Plan. Una vez finalizado el ejercicio 1989, y en orden a no generar un vacío legal en la materia, el Gobierno consciente de la necesidad de esta medida, considera oportuno ampliar el horizonte temporal del Decreto 39/1989, de 28 de febrero, en tanto en cuanto no se proceda a la definitiva implantación del Ingreso mediante la aprobación de la futura Ley.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 29 de diciembre de 1989,

DISPONGO:

*Artículo Primero.*— 1. Queda prorrogada la vigencia del Decreto 39/1989, de 28 de febrero por el que se regula la concesión del Ingreso Mínimo Familiar hasta el 31 de diciembre de 1990.

2. La prórroga contemplada en el párrafo precedente decaerá con la entrada en vigor de la Ley del Ingreso Mínimo de Inserción.

*Artículo Segundo.*— El plazo de presentación de solicitudes será el correspondiente al del período de vigencia de la presente disposición.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta al Consejero de Trabajo y Seguridad Social para dictar cuantas Disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del

jarriko da indarrean, eta, dena den, 1990.eko urtarrilaren lehenengotik aurrera izango ditu eraginak.

Gasteiz, 1989.eko abenduak 29.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantza Sailburua,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

País Vasco, y tendrá en todo caso efectos a partir del 1 de enero de 1990.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de Diciembre de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
JOSE IGNACIO ARRIETA HERAS.

# Beste zenbait Xedapen
# Otras Disposiciones

## LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

**62**

**278/1989 DEKRETUA, abenduaren 29koa, «Nerbioi-Ibaizabal interzeptorearen Parkea-Retuerto zatiari dagokion 1 zenbakidun Osagarrizko Obren Proiektua» gauzatu ahal izateko beharrezko diren ondasun eta eskubideez, nahitaezko desjabetzapena egin ahal dezan, Bilbo Haundia Eskualdeko Uren Partzuergoa jabetzea presaz egin beharrezkotzat deklaratzen duena.**

Bilbo Haundia Eskualdeko Uren Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen akordioz, informazio publikora jarri ziren hasiera batean «Nerbioi-Ibaizabal interzeptorearen Parkea-Retuerto zatiari dagokion 1 zenbakidun Osagarrizko Obren Proiektua» gauzatu ahal izateko beharrezko diren ondasun eta eskubideak, nahitaezko desjabetzapenaren ondorioetarako; gerora, Nahitaezko Desjabetzapen Legearen berrogeitamabigarren atalean eta Autonomi Estatutuaren Aldibaterako Xedapenetatik Zazpigarrenean agindutakoaren babespean, Eusko Jaurlaritzari nahitaezko desjabetzapenak eragiten dituen ondasun eta eskubideak presaz jabetu beharrekotzat deklara zitzala eskatzea erabaki zen.

Presaz jabetu beharrekotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak, beroriek ezagutzeko beharrezko diren hainbat xehetasunez zehaztuta eta banakatuta gelditu ziren horretarako egindako espedientean azaltzen den zerrendan; zerrenda hori, bere garaian, jendaurrean jarri zen, eta baita bost alegazio jaso ere, zeinen ondorioz aldakuntzak egin baitzitzaizkion proiektuari.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, proposatutako erabilpenen eta hirigintzari buruz indarrean dagoen legeriaren arteko adostasunari buruz, aldeko erizpena eman zuen.

Jabetze hori luzaezinezkotzat jotzen da, Bilbo eta Barakaldo udalerriak Saneamendu Sistema Orokorraren barne sartzearren, Bilbo eta bere eskualdeko H.A.P.O.aren aldakuntzaren arabera.

Hori dela eta, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1989.eko abenduaren 29ko bileran aztertu ondoren, honako hau

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO

**62**

**DECRETO 278/1989, de 29 de Diciembre, por el que se declaran de urgente ocupación por el Consorcio de Aguas de la Comarca del Gran Bilbao, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos necesarios para la realización del «Proyecto de Obras Complementarias n.º 1 del interceptor Nervión-Ibaizabal, tramo el parque-Retuerto».**

Por el acuerdo del Comité Directivo del Consorcio de Aguas de la Comarca del Gran Bilbao, se sometieron inicialmente a información pública, a efectos de expropiación forzosa, los bienes y derechos necesarios para la realización del «Proyecto de Obras Complementarias n.º 1 del interceptor Nervión-Ibaizabal, tramo el parque-Retuerto»; acordándose posteriormente solicitar ante el Gobierno Vasco la declaración de urgente ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa, al amparo de lo dispuesto en el artículo cincuenta y dos de la Ley de Expropiación Forzosa y Disposición Transitoria Séptima del Estatuto de Autonomía.

Los bienes y derechos a los que se concreta la declaración de urgente ocupación han quedado determinados e individualizados con los datos suficientes para su identificación en la relación confeccionada al efecto y que obra en el expediente, la cual, en su momento, fue sometida a información pública presentándose cinco escritos de alegaciones, en virtud de los cuales se realizaron modificaciones al proyecto.

El Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, informó favorablemente sobre la correspondencia entre los usos de los terrenos propuestos y la legislación urbanística vigente.

Se estima inaplazable la ocupación a fin de incluir a los términos municipales de Bilbao y Barakaldo en el Sistema General de Saneamiento, según la modificación del P.G.O.U. de Bilbao y su comarca.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 29 de diciembre de 1989,